

Urtea amaitu eta berriari ekin

Hitzorduz beterik datoz 2025eko azken egunak eta 2026ko lehenengoak / 14

AIURRI

Urrezko Domina, Iriondori

Gipuzkoako Foru Aldundiak Urnietako sortzailea aintzat hartu du, ekitaldi hunkigarrian / 12

Olentzero eta Mari Domingi: "Eskertuta gaude etxe guztietan egiten diguzuen harrerarekin" / 8-9

Aitortza-ekitaldia egin berri dio Urnietako Udalak Bizikidetzarako Herritarren Taldeari / 6

Eguberri eta Urte berri on!!!


Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia, 6. Andoain. 943 591 224



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA




12,6 milioi euroko udal aurrekontua

URNIETA Udal Gobernu-taldeak, jada, egin du bere proposamena: 2026ra begira, 12.642.927 euroko aurrekontu-proposamena egingo du ostegun honetako plenoan. Aurreko astean lerro nagusiak aurkeztu zituzten prentsa-agerraldian

Erredakzioa URNIETA

Joan den ostegun arratsaldean eman zuten EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek proposamenaren berri, Udaletxeko areto nagusian egindako agerraldian. Legeintzaldiari begira "diseinu eta plangintza lan garrantzitsua" egin dutelakoan da Jorge Segurado alkatea: "Etorkizuna erakitzeke oinarri ona finkatu dugu, horregatik legealdiaren hirugarren urteari determinazioz eta ilusioz aurre egingo diogu". Aurreko urtearekin alderatuta, 2026ra bideratu nahi den partida txikiagoa izango da, 2025erako 13.601.811 euro aurrekontua onartu baitzen. Seguradok zehaz-



Urnietako EAJ-PNVko eta PSE-EEko ordezkariak. AIURRI

tu bezala, iaz izandako bi diru-sarrerara hartu behar dira kontuan aldea ulertzeko: Miravalleseko lurren salmenta eta Lasarte-Oriaranzko saihezbidea egiteko aurreraturako diruaren itzulke-ta. Ildo nagusiak, laburbilduta:

Gizarte-arloa

Laguntza-etxebizitzaren zerbitzua, batetik, eta Zaintza Mahaiaren eraketa, bestetik, zerrendatu zituzten: "Gure adinekoak eta pertsona zaurgarrienak zaindu, babestu eta artatzeko erreferentziako administrazioa izan nahi dugu".

Etxebizitza

Hurrengo urtean, martxan jarriko dute Babiloniako eremua. Hain zuzen, 340 etxebizitza erai-kiko direla iragarri zuen alkateak: horietatik % 75 babestuak izango dira.

Euskara

Euskararen prestakuntza "bultzatzen" jarraituko dutela zehaztu zuten. Erabilerari eusteko asmoa ere badu Gobernu-taldeak, herrian hizkuntzak duen presentziaren diagnostikoa eginda.

Eragileekin hitzarmenak

Oro har, gora egingo dute herriko eragileekin egindako hitzarmenek, Seguradok adierazi zuenez, eta guztien artean Easo abesbatzarekin adostutakoa mahaigaineratu zuen agerraldian.

Partaidetza-prozesuak

Lehenik, txosnen ordenantzaren auzia bideratzeko bitartekaritza-enpresa kontratatu da. Bigarrenik, gazteen aisialdiari buruzko azterketa egitea aurreikusi dute eta, azkenik, urtero lege, aurrekontu irekiak.

Inbertsioak

Garrantzitsuenen artean dira atletismo-pistaren zein futbol-zelaiaren berritzea eta kanpoko harmailak estaltzea. Baina, horrez gain, erronka-zerrenda luzea aipatu zuen, besteak beste: Arantzubiko aldapan arrapala mekanikoak jartzea.

Datorren abenduaren 18an bozkaturiko da aurrekontu-proposamena. Horrela, Seguradoren ustez, "Urnietaren etorkizuna anbizioz diseinatzeko aukera" emango du proposamenak.



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Ebeiz ebeiko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzalea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieteta).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Ezkerrean, artisautzazko belarritakoak egiten dituen Lar ekoizlea. AIURRI

Milatik gora bisitari, Gabonetako azokan

ANDOAIN Ostiral arratsaldean hasi eta igande eguerdira bitarte, mila laguneko bisitarien langa gainditu zen Larramendi Bazkunak antolatutako azokan. Guipuzcoano eraikinaren behin-behineko irekierak ikusmina sortu du andoaindarren artean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Andoaingo gizarte-bizitzan garrantzi berezikoak dira elkarteak eta, haien guztien artean, udazken honetan, Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren ekarpena aipagarria izaten ari da. "Andoaingo Euskera, bihotzetik kalera" egitasmoa martxan dute, bigarren urtez jarraian, egoitza berria eskuratu asmoz.

Etenik gabe ari dira lanean. Urrian, Kaimuturrean egin zuten udazkeneko lehen ekitaldia, Aiduru musika taldearen parte hartzearekin. Eta, urrian bertan, Gau Beltza antolatu zuten. Azaroan Azoka Bereziaren bigarren edizioa egin zuten Goikoplazan eta, abenduaren 2an, "Ez gara alferrik pasako" dokumentalaren emankizuna.

Gabonetako Azoka

Aurreko asteburuan, ehunka herrikide hurbildu zen Gabonetako Azoka berezira. Belarritakoak, ilustrazioak, estanzazioak, zapiak, poltsoak... Askotariko produktuak ikusteko eta erosteko aukera izan zen. Bisitarien datu totala eman du Bazkunak: milatik gora dira Kale Berria 50etik igarotako bisitariak.



Irteera eta bazkaria egin zuten igandean. IRUNBERRI

Irunberri elkartearen urteurreneko ekitaldiak

ANDOAIN Larunbatean bertso-bazkaria egingo dute elkartearen, Jon Maia eta Maialen Akizu bertsolariekin

Erredakzioa ANDOAIN

Pala-txapelketa eta familia eguna egin zituzten aurreko astean. Ospakizunen bigarren txanda ostegun honetan abiatuko da.

Abenduak 20, larunbata

14:30ean hasiko da bertso bazkaria. Menua: babarrun-jana. 19:30ean hasita, Malkogarriyak taldea zuzenean ariko da.

Abenduak 18, osteguna

19:00etatik aurrera, pintxo eta edariaren bueltan.

Abenduak 21, igandea

Kantu kalejirari ekingo diote eguerdiko 12:30ean.



Karaokean kantari aritu ziren haurrak, igande arratsaldean. IRUNBERRI

GOROSTIDI
Burdindegia

Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472

www.brikogoros.com





Aurrekontuari ekarpenak egin dizkio EAJ-PNVk

ANDOAIN 2026ko Udal aurrekontu proposamena eztabaidatzeko dago Andoainen. EH Bildurekin kritiko agertu da EAJ-PNV alderdia: "Urtea amaitzeaz da eta EH Bilduren Gobernu taldea ez da gai izan 2026ko aurrekontuen zirriborroa garaiz aurkezteko"

Erredakzioa ANDOAIN

2026a begibistan dago eta udal administrazioan aurrekontu berriaren prestaketa-lanetan murgilduta daude herri gehienak. Andoainen, gobernu-ardurak dituen EH Bildurekin kritiko agertu da EAJ-PNV alderdia. "Urtea amaitzeaz da eta EH Bilduren Gobernu-taldea ez da gai izan 2026ko aurrekontuen zirriborroa garaiz aurkezteko", adierazi dute jeltzaleek prentsara bidalitako oharrean. Aurrekontua garaiz aurkezteko ekimen falta leporatzen diote EH Bilduri: "Edozein erakunderi eskatu behar zaio urte berria aurrekontua bideratuta hasteko ahalgina egitea eta, Andoaingo kasuan ez da horrela izango Gobernu-taldeak gehiengo osoa bermatuta duen arren". Geldialdi horren aurrean, EAJ-PNV udal taldeak 2026ko udal aurrekontuetan txertatu nahi duen neurri-sorta aurkeztu du.

Laburbilduz, honako hauek dira proposamenak:

- Aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea: Leitzaran institutuko atzealdean aparkalekua, 100 ibilgailurentzat tokia izango lukeena. Horrez gain, Galardin beste aparkaleku-proiektu bat amaitzeaz dago, 20 plaza gehigarriekin.



Mikelez eta Goenaga EAJ-PNV udal taldeko zinegotziak. EAJ-PNV

- Trantsizio energetikoa eta auto-hornidura bultzatzea: 100.000 euroko partida eguzki-plakak instalatzeko: 70.000 euro OPUA eraikinean, eta 30.000 euro gehiago Bastero Kulturgunean edo hilerriko sabaialdean.
- Leizaur lokalaren eta plazaren egokitzapena: EAJ-PNVk 60.000 euro gordetzea proposatzen du ondoko lokala egokitzeko eta kanpoko plaza antolatzeke.
- Bertxingo zentralaren eguneratzea: 2025ean hasitako lane-

kin lerrokatuta, gutxienez 50.000 euroko partida bermatzea.

- Udal liburutegi berria: 60.000 euro eskatu dute hirigintza arloko proiektua idazteko, eta beste 60.000 euro Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO/PGOU) aldatzeko lanak hasteko.
- Ondarretako irisgarritasuna eta urbanizazioaren hobekuntza: 1. Fasea abiaraztea. Ondarreta atzealdean, etxebizitzetara sartzeko oztopo nagusiak pilatzen dira bertan.



Sarek deialdi bikoitza egin du, egunotan. AIURRI

Bi mobilizazio deitu ditu Sarek, datozen asteetan

ESKUALDEA Elkarretaratzea, hilaren 31n, Andoainen; nazio mailako manifestazioa Bilbon, urtarrilaren 10ean

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Sarek "Egoera hau ezin baita gehiago luzatu! Konponbidea. Bakea. Elkarbizitza" goiburu duten bi mobilizazioetan parte hartzera deitu ditu herri-tarrak. Lehena, Andoainen, abenduaren 31n, 18:00etan izango da, Goikoplazatik abiatuta. Bigarrena, berriz, nazio mailakoa izango da, eta Bilbon egingo da, urtarrilaren 10ean. Bilbora joateko autobus-txartelak jada Irunberri tabernan eskuratu daitezke.

Mobilizazioa sustatzeko arrazoiak

"Preso dauden eskubideak defendatzeko eta, batez ere, Euskal Herrian konponbidearen, bakearen eta elkarbizitzaren

aldeko apustua egiteko" antolatu dituzte bi mobilizazioak: "Eskubideez ari garela, zuzenbide estatu batean eskubideak, definizioz, ezin dira urratu eta, urratzen badira, salaketa egin eta babestu behar dira. Eskubideak defendatzea betebeharriz bikoia da".

Plaza Morean egindako agerraldian erantsi zuten, 34 urte behar izan dira "urruntze politika ankerra bertan behera uzteko, 2023ko martxoan, zehazki. Beste hainbeste urte behar izan dira ia preso guztiak espetxeko lehen gradutik, hau da, erregimen itxitik, ateratzeko. Espetxeko erregimen horrek salbuespena izan beharko luke, kontuan harturik presoaren eskubideak nola mugatzen dituen".



Eguberrietako sariak

Sari hauek irabazi nahi?
Abenduaren 15etik 31ra erosi Andoaingo saltoki eta ostalaritzan eta sari hauetako bat egokitu dakizuke.

- 50€-25€
- Esperientzia 1

Eguberriak beti ekartzen zaitu etxera. Erosi Andoainen, mantendu bizirik herria.

Gertu erosi, gertu irabazi

TXU-TXU TRENA
Abenduak 27
10:00 - 14:00
Goikoplazatik aterako da







Gabonetako argien pizte-ekitaldia

URNIETA Argiak pizteko ekitaldiaz harago doa Urnietako Etxeberri plazako hitzordua: trikitilari eta pandero-joleak, Gabon kantak, txirula-emanaldia, txokolate beroa... Gabonak bertan diren seinale da argiz eta kolorez betetzen den urteko sasoa



Txokolate beroa banatu zuten Etxeberri plazan. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Aurreko ostegunean Magale-Salestarrak ikastetxeak Gabonetako argien pizte-ekitaldia egin zuen Etxeberri plazan. Arratsalde polita antolatu zuten, gainera: trikitilari eta pandero-joleak, Gabon kantak, txirula-emanaldia, txokolate beroa... Olentzero eta Mari Domingi ere hurbildu ziren hitzordura, urteko gaurik magikorako geroz eta gutxiago falta den honetan.

Urnietako plazaren bueltako azpiegitura ikastetxeak lantzen du.




Donezaka ikasle eta familia hurbildu ziren ekitaldira. AIURRI



AIURRI

Gaztain-jatea, larunbatean

ANDOAIN Urki dantza taldeak gaztain-jatea eta erromeria antolatu du larunbat honetarako, Juanita Alkain plazaxoan. Eguerdiko 12:30ean hasiera emango diote hitzorduari. Erromeriara ahalik eta jende gehien bildu ahal izateko prestaketa-saioa egingo dute ostegun honetan, 18:30ean hasita. Entsegua Urkik Olagain auzoan duen egoitzan egingo dute.



AIURRI

Manta eta arropa-bilketa

ANDOAIN Kontseilu Sozialistak neguko manta eta arropa-bilketa egingo du Andoaingo Eskola Kaleko egoitzan. Zehazki, abenduaren 20an, 11:00-13:00 artean; eta, abenduaren 22an, 19:15-20:15 artean, Igara espazioan. Abenduaren 27an, berriz, toki berean, jasotako arroparen banaketa egingo dute 11:00-13:00 orduen artean.

Merry Christmas

and a happy New Year!


**KIWI
CORNER
ENGLISH**

Ondarreta 7 behea, Andoain | 688 76 35 70

www.kiwicorneracademy.com

CAMBRIDGE EXAMS
PRESTAKUNTZA
ZENTRU BAIENOLIA



Urnietako
udala



Aitortza, bizikidetzaren aldeko eragileei

URNIETA Sorreratik ia hamar urte bete diren honetan, aitortza-ekitaldia egin zion Urnietako Udalak joan den asteazkenean Bizikidetzarako Herritarren Taldeari. Bertan izan ziren omenduak, Baketik fundazioko kideak, bai eta ordezkari politikoak ere



Mertxe Estebez, Joxpi Lasa eta Rosa Elozegi izan ziren protagonista nagusiak. AIURRI

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Duela ia hamarkada bete sortu zen Urnietan, Baketik fundazioa lagun, Bizikidetzarako Herritarren Taldea, memoria, bizikidetzatza eta bakea lantzeko kezka partekatu batetik abiatuta. Hori horrela, taldeak egindako ibilbideari aitortza egiteko, ekitaldia egin zuen Urnietako Udalak, joan den abenduaren 10ean, areto nagusian. Mertxe Estebez, Joxpi Lasa eta Rosa Elozegi izan ziren protagonista nagusiak, egun, taldean jarraitzen duten hiru kideak. Bertan egon ziren, era berean, Baketik fundazioko kideak bai eta udalean ordezkaritza duten hiru alderdiak ere.

Herme Gonzalez PSE-EEko buruak zein Gobernu-taldeko kideak gidatu zuten ekitaldia, eta harena izan zen lehenik hitza. Gogoan izan zuen hitzorduan taldea askotariko biografia, ideologia eta sentiberatasuneko herrikidez osatuta egon dela, “azken hamarkadetakotako motibazio politikoko indarkeriaren eta terrorismoaren ondorioak hobeto ulertzera bereziki bideratua”. 2016ko urtarrilean, Baketik fundazioak dinamizatutako jardunaldi ireki batetik gaurdaino egindako prozesua “eraman handikoa, serioa eta zorrotza” izan dela azpimarratu zuen: “Taldekideek, gaur egun jarrai-

tzen duzuenok eta beste une batzuetan parte hartu zutenek, ereduak bide bat eraiki duzue”. Adibide gisa aipatu zituen urteotan egindako hainbat ekimen publiko, besteak beste: 2018ko Bizikidetzaren eta Memoriaren Jardunaldietan izan zuten parte-hartzea eta lidergoa, 2020tik 2022ra bitarte herrian indarkeria jasan duten bizilagunak jasotzeko eta beren lekukotza modu intimoan eta errespetuzkoan entzuteko ireki zuten espazioa edota horren harira 2023an argitaratutako “Indarkeria sufritu duten urnietarrak entzunez: aitortzarako bideak argitzeko ikaskuntzak” dokumentua.

“Zuen lanak arduradun publiko gisa interpelatu gaitu, aktibatu egin gaitu”, azaldu zuen Gonzalezek. Bada, horrekin lotuta, aurreratu zuen urtebete daramala Urnietako Udalaren Bake eta Bizikidetzatza Batzorde Bereziak, Baketik lagun duela, Urnietako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa batean murgilduta: “2026an ondorioak aurkeztu ahal izatea da helburua, udal ordezkaritza duten alderdi guztien akordio politikoarekin”.

Lekukoa, Urnietako Udalari

Jarraian, Jorge Segurado alkatetz gain, hitza hartu zuten hiru alderdietako kideek, guztiek, Bizikidetzarako Herritarren Taldeari begirunea adierazteko, bai eta Baketik fundazioko ordezkariak ere, esker hitzez zuzendu baitziren, bai omenduei, bai Urnietako Udalari.

Hiru protagonistek ere izan zuten tarterik, prozesuan lagun izan dituzten kide guztiei aitortza egiteko. Ibilbideari errepasoa eginez abiatu zuten hitzartzea: “Denborarekin, memoriaren inguruko hausnarketa sakonak egin genituen, testuak adostu, eta herrira irekitzen hasi ginen, gure ahotsa modu xumean baina konprometituaz plazaratuz”. Atzera begira ipinita, berretsi egiten dira taldeak egindako ekarpenek izan duten garrantzia: “Urte hauetan taldean izandako pertsonen utzi diguten arrastoa eta elkarrekin ikasitako guztia gaurko egun honen parte ere badira”.

Taldearen esanetan, entzuteariketa izan da prozesu osoko esperientziarik “sakonena eta hunkigarriena”. Espazio “segurua, diskretua eta gizatiarra” sortzea izan zuten xede eta be-

deratzi lagunekin bildu ziren: “Enpatian sakontzeko eta gure herriko errealitatea hobeto ulertzeko ariketa izan da: minen aniztasuna, isiltasunak, beldurak, hausturak eta baita erresilientziaren indarra ere agertu dira solasaldi horietan”.

Hala, aitortza publikoa jasotzea “pauso guztiz esanguratsua” dela uste dute eta etorkizunera begirako lau erronka aipatu zituzten: lehenik, biktimen aitortza publikoaren bidea sendotzea, “bizitzaren eskubidearen urraketen biktimei zein beste-lako sufrimendua bizi izan dutenei eremu egokia emanaz”. Bigarrenik, herriko memoriaren mapa osatzea, “gertatutakoa dokumentatu eta partekatzeko, beste udalerrri askotan egin den moduan”. Hirugarrenik, elkar entzuteko espazioak zabaltzea, “iraganeko lubakiak gainditzen lagunduko duten topaketak sustatuz”. Eta, azkenik, Urnietako Udala interpelatu zuten, “lidergo argia” izatea eskatzeko, “ez soilik ekitaldi puntualetan, baizik eta ikuspegi estrategikoarekin, elkarlanarekin eta bermekin”. Horregatik, lekukoa Urnietako Udalari pasa nahi diotela jakinarazi zuten omenaldian: “Guk abiatu dugun entzute- eta aitortza-bideak jarraipena izan behar badu, ez da gure esku egongo, baizik eta instituzioaren lidergoan eta herriaren borondate kolektiboan”.

Oroigarri bana

Hitzordua biribiltzeko, oroimen-plaka eta lore-sorta bana jaso ondoren, Agurra dantzatu zien Egape Dantza Taldeko Naroa Exposito Ibarbia dantzariak, Txanbolin txistulari bandako kideak lagun.





Abesbatzak kantari, elizan

ANDOAIN Eguberrien atariko egunetan emanaldi-sorta antolatzen dute Andoainen. Aurreko igande arratsaldean, esaterako, Andoaingo abesbatzek emanaldia egin zuten San Martin Tours elizan.

Udal Musika Eskolako Abesbatza Txikia, Abesbatza Gaztea eta Helduen Abesbatza kantuan aritu ziren eta, piezaz pieza, Gabon giroan murgildu zuten ikuslegoa. Errepertoria, besteak beste, honako kantuokina osatu zuten: "Txoria txori", "Ai hau gabaren", Goizian argi hastian", "Oh Gau Santu"... Katrin Iturralde irakasleak zuzendu zuen emanaldia, Myriam Ulanga piano-jolearen laguntzarekin.



AIURRI

Fracaren omenez

ANDOAIN Irungo Luis Mariano Lirika Elkartek, Miryam Ulanga eta Uxue Ricon piano-jotzaileek Luis Fraca Royo musika-irakaslea eta konposatzailearen piezak biziberritu zituzten, larunbat arratsaldean, Bastero Kulturguneko auditorioan. Fraca musika-irakaslea eta konposatzailea itzal handiko musikaria da Andoainen.



AIURRI



AIURRI

AMABI

Gabon zoriontsuak!

haur eta gazte jontziak
0-16 urte

eta
emakumeentzat

HĪKA BATELA PIECES

Zumea kalea, 15. ANDOAIN. 943 57 31 62

f i

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



“Oso eskertuta gaude etxe guztietan egiten diguzuen harrerarekin”

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

ANDOAIN, URNIETA Bi protagonista magikoen bisita jasoko dute urnietarrek eta andoaindarrek, abenduaren 23an eta 24an, hurrenez hurren



Olentzero eta Mari Domingi. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Hamar, bederatzi, zortzi... Hasi da atzera kontaketa, hemen dira Gabonak! Zazpi, sei, bost, lau... Prest al dituzue gutunak? Hiru bi bat... Begira norekin egin dugun topo, Mari Domingirekin eta Olentzerorekin! Gabon gaua ate-joka den honetan, zerbait berezia daukate zuri esateko, irakurle koskor hori!

Badatoz, hemen dira Gabonak! Lan eta lan arituko zarete honezkero... Zeintzuk dira azken txanpako egin-beharrak?

Mari Domingi: Bai... Abendua iristearekin batera urtero urduritasuna ere iritsi ohi da gurera!

Eta baditugu zenbait lan azken egun hauetan, bai. Beti jasotzen ditugu azken momentuan bidalitako gutun batzuk eta horiek mimoz irakurtzen aritzen gara iluntzean sutondoan. Ezta, Olentzero? Opari horiek prestatu, beste batzuk biltzeaz amaitu, ikatza zakuetan sartu, haur guztien helbideak birpasatu...

Olentzero: Horrekin lan galanta izaten dugu, bai! Urtero-urtero mapa kaxoitik atera behar izaten dugu, aurreko urteko helbideak ahaztuta izaten baititugu... Eta helbide berrien zerrendak ere iristen zaizkigu abendua ailegatu bezain pronto. Hori bai pozgarria, urtero helbide berriak egoteak esan nahi du haur berriak daudela gure artean!

Dena dela, noiz hasten zarete Gabonei begirako prestaketan?

Olentzero: Urte osoko lana izaten da... Baina goxotasunez eta lasai hartzen saiatzen gara. Adin bat dugu jada eta patxadaz egin behar ditugu gauzak! Garai batean bai, bixi-bixi aritzen ginen biak! Orain betaurrekoak hartu eta, Mari Domingik esan bezala, hortxe egoten gara bata besteari gutunak ozen irakurtzen.

Mari Domingi: Baserriko lanak ere egiten ditugu bien bitartean. Txondorrak egin eta zaindu behar dira, abereekin egon, belarra egin... Lan handia izaten dugu! Gabonen prestaketa gure zeregin kuttuna izaten da, egunerokoa goxatzen baitigu.

Abenduaren 23an Urnietara jaitsiko zarete bisitan eta 24an, berriz, Andoainera.

Mari Domingi: Bai, hori da! A zer nolako poza! Haurrekin egoteko irrikatan gaude! Asteartean, Urnietan izango gara, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Egape Dantza Taldeko kideak lagun. Asteazkenean, berriz, andoaindarrei egingo diegu bisita, arratsaldeko 17:30ean. Gainera, lehenago, 20an, herritarren gutunak jasotzeko aukera izango dugu Etxeberrieta plazan, bertako Jai Batzordeari esker.

Olentzero: Oso arratsalde bereziak izango dira, herrira jaisten garen unea delako urte osoan haurrekin egoteko daukagun momentu bakarrenetarikoa. Besoak zabal-zabalik izango ditugu, zuei guztiei besarkada handia emateko!

Gabon gauean, afalorduan, lanean egon ohi zarete... Zerbait jaten al duzue indarra hartzeko?

Olentzero: Indarra behar da Gabon gauari aurre egiteko eta, badaezpada, beti daramagu zerbait etxetik: gazta pixka bat, ogi zati batzuk... Baina etxe guztietan izaten dugu jatekoren bat edo beste eta bapo amaitzen dugu gaua!

Mari Domingi: Bai! Joan den urtean Napo astoa etxera ezin itzuli ibili zen, gailera gehiegi janda, antza... Egun batzuk pasa behar izan zituen soilik belarra jaten! Oso eskertuta gaude herri eta etxe guztietan egiten diguzuen harrerarekin!

20 urte zuekin! Eskerrik asko!

Bezereen artean bi zozketa egingo ditugu:

• **Abenduak 22: Gabonetako kutixiak.**
(ONCE zenbakiarekin)

• **Urtarrilak 4: Bost errege-opil.**
(Zozketa egunean bertan egingo da Arrutin. Zenbaki irabazleak sare sozialen bitartez iragarriko dira)

Gabon zoriontsuak!

Zumea, 18
ANDOAIN
943 593 777

gozotegia

arruti



Enkarguak jasotzen ditugu



Larunbat honetan, 18:00tan hasita, Andoaingo Etxeberrietan plazan gutunak jasoko dituzte Olentzerok eta Mari Domingik. AIURRI

Opariak banatu eta banatu izaten zarete Gabonetan. Zuek, baina, jasotzen al duzue sorpresarik?

Mari Domingi: Urtero, oparixoren bat egiten diogu elkarri, eta zer nolako poza ematen duen sutondoan zure izena duen paketetxo topatzeak, ezta, Olentzero?

Olentzero: Bai! Orduantxe sentitzen dugu zuek sentitzen duzuenaren zatitxo bat...

Hala ere, guretzako sorpresarik handiena zuen aurpegiak ikustea izaten da, herrira iristean besoak zabalik jasotzen gaituzue urtero-urtero! Horrek ez du parekorik!

Zer moduz portatu dira eskualdeko haurrak aurtan?

Mari Domingi: Kasketak izan dira, bihurrikeriaren bat edo beste, gezurtxo batzuk handik eta hemendik... Baina barreak ere

nonahi izan dira, jolasa, talde-lana, elkarriketak, eztabidak, besarkadak... Haurtzaroa gure kuttuna dela badakizue eta den bezalaxe maite dugu! Hortaz, etxe guztietan izango dira opariak.

Ikatz zatiren bat edo beste banatzea tokatuko zaizue, ziurrenik...

Olentzero: Ikatz zatitxo batzuk utziko ditugu han eta hemen... Baina helduei utziko dizkiegu gehienak! Helduek haurrago izaten hasi beharko dute ikatza jasotzeari utzi nahi badiote! Lan gutxiago eta jolas, hitz, begirada eta barre gehiago behar ditugu haiengandik!

Urteari errepassoa ematen zaio, askotan, Gabonetan. Zer nolakoa izan da zuen 2025a?

Olentzero: Lasaia izan da... Esan bezala gero eta patxada handia-

goz hartzen dugu egunerokoa, nahiz eta gelditu gabe aritzen garen.

Mari Domingi: Birus bat edo beste hartu dugu, baina osasuntsu egoten eta elkar zaintzen jarraitzen dugu. Urte ederra izan da, emankorra. Baratzak uzta ederra ekarri digu, arkumeak eta txitak jaio zaizkigu baserrian... Eta gutunak jasotzen jarraitu dugu, ipuinekin batera gure irakurgairik gogokoa.

Hemen da 2026. urtea. Ezer berezirik desio al diozue datorrenari?

Mari Domingi: Mundu aztoratu honetarako bake pixka bat nahi genuke. Eztabaida osasuntsu gehiago, elkar zaintza eta entzutea.

Olentzero: Etxe epel bat, osasuna eta maitasuna pertsona ororentzat. Hori da desio duguna.



AIURRI

Auzotarren ekimena

URNIETA Gabon giroko apaingarriekin hornitu dute, beste urte batez, Errekalde kalea. Ikusgarriak dira zuhaitzen enborretan eta adarretan jartzen dituzten bizikletak eta bestelako elementuak, argiz eta kolorez beterik. Auzotarrenaz gain, kirolgunera hurbiltzen diren kanpoko taldeen arreta bereganatu ohi du ekimenak.



AIURRI

Dendariaren ekimena

ANDOAIN Eguberrietako erakusleiho aparta atondu dute Kale Nagusiko Labores Arantzan. Iaz bezala, herrikide askoren jakin-mina piztu du. Ekimena abiatu zuenetik, gainera. Lehen egunean guraso eta haur asko ziren kanpoaldean, erakusleihoan jarritako elementuei begira. Olentzero, Mari Domingi eta Errege Magoei gutunak bertan uzteko aukera dute hurrek.

Ernaitza

liburudenda

Eguberritako eskaintza bikaina

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkezten diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Zumea, 9. ANDOAIN. 943 592 459

ernaitza.amilibro.com
ernaitza@yahoo.com



ASIER RUIZ IZQUIERDO URTARRILA



MILAGROS LAVADO DE LA REVILLA OTSAILA



NEREA URALDE ARRONDO MARTXOA



BELEN VEIRAS LIÑARES UZTAILA



ANE JALON ZATARAIN ABUZTUA



UXUE BOTAS PEÑIN IRAILA

Egutegi berriko irudien egileak

ANDOAIN Aste honetan Salkin elkarteak Agustin Leitza kalean duen egoitzan banatzen ari dira Andoaingo Udalak hamabi argazkilariekin osaturiko egutegia. Aurtengo gaia merkataritza izan da

Erredakzioa ANDOAIN

2026ko egutegiko argazkien izen-buruak eta egileen izen-abizenak, jarraian:

- Urtarrila. "Euskal pilota". Asier Ruiz Izquierdo.
- Otsaila. "Luces y sombras en Sorabilla". Milagros Lavado de la Revilla.
- Martxoa. "Loreen antzera, kultura loratzen". Nerea Uralde Arrondo.
- Apirila. "Pequeña viajera, universos de tinta". Juan Pablo Fernandez Ramirez.
- Maiatza. "Escopeteros". Jose Miguel Romero Barco.

- Ekaina. "Axerriak elizari begira". Imanol Fernandez.
- Uztaila. "Arte en la calle". Belen Veiras Liñares.
- Abuztua. "Edozein modutan dira ederrak". Ane Jalon Zatarain.
- Iraila. "Guduak ez du aurpegiarik". Uxue Botas Peñin.
- Urria. "Andoaingo txinparta". Alain Saiz Antoñana.
- Azaroa. "Harritz, suz eta arnasez egindako kultura". Francisco Javier Davila Muñoz.
- Abendua. "Fotogramas". Argazkia: Jose Manuel Garrido Cobo.

Aiurrikide izatea %30 merkeago

Aiurrik **lehentasunezko mezenasgo jarduera izendapena** jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

Aiurriko harpidedun zaren horri, **zerga onurak ezarriko zaizkizu 2025eko jardueran** Aiurri egin diozun ekarpenarengatik.

Horrenbestez, zure kuota **%30 merkatuko** zaizu errenta aitorpena egiterakoan.



Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez aiurrikide

**AIURRI
KIDE**






JUAN PABLO FERNANDEZ RAMIREZ APIRILA



JOSE MIGUEL ROMERO BARCO MAIATZA



IMANOL FERNANDEZ CARBALLO EKAINA



ALAIN SAIZ ANTÓNANA URRIA



FRANCISCO JAVIER DAVILA MUÑOZ AZAROA



JOSE MANUEL GARRIDO COBO ABENDUA



**KUTTUN
KAFETEGIA**

943 24 61 54 - @kuttunkafetegia

Agustin Leitza, 5. ANDOAIN

Gabon zoriontsuak!

Enkarguak jasotzen ditugu



MIZPIRADI

SAGARDOTEGIA

Urte osoan zabalik!

943 59 39 54

Leizotz, 14 - ANDOAIN - www.mizpiradi.eus

Eguberri on!



**ORMENDI
KIROLAK**

Olentzero eta Mari Domingiren eskaerak osatzen goaz

Tai egun zoriontsuak opa dizkizuegu!

f

i

g



Iriondotarrak, ekitaldiaren amaieran ateratako argazkian. Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

Urrezko domina, Lurdes Iriondori

URNIETA Luzea da Urnietako abeslari, idazle eta antzerkigilearen itzala. Berriki, Gipuzkoako Foru Aldundiak Urrezko Domina eman dio haren ibilbidea aitortuz. Ekitaldira familiakide ugari hurbildu zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Gipuzkoako Foru Aldundiak hilondoko aitortza-ekitaldia antolatu zuen Lurdes Iriondo Mujikaren (1937-2005) omenez. Maria

Jesus eta Maria Angeles Lurdesen ahizpek Eider Mendoza Diputatu Nagusiaren eskutik jaso zuten Urrezko Domina, Gipuzkoa plazako eraikinean antolatu zu-

ten ekitaldi hunkigarrian. Maria Angeles, Maria Jesus, Fatima eta Ana ahizpak ez ezik, Iriondo familiako kide ugari ere bertaratu ziren ekitaldira.

Alaia Martin bertsolariak egin zien harrera Aldundiaren egoitzan bildutako guztiei, eta ondoren, Mariasun Landa idazleak, Joxe Mari Iriondo Loiola Irratiko esatari ohiak, eta Eider Mendoza Diputatu Nagusiak hartu zuten hitza.

Ainara Ortegak (ahotsa), Anjel Unzuk (gitarra), Mikel Azpiroz (pianoa) eta Juanan Urriazak (bateria) Iriondoren abesti ezagunak (*Loa loa ttunturrin berde*, *Isiltasuna*, *Gaua*, *Hala ere*, *Agurra* eta *Errota zaharra*) biziberritu zituzten.

Bestalde, Borobil Teatroak, Urnietako haurrekin Iriondok berak taularatu zuen "Urnietako Buruntza Azpian" antzezlanaren pasarte bat biziberritu zuen.

Mariasun Landaren hitzartzea

"Ekitaldia ez da iraganeko irudi bat berreskuratzea soilik. Gure hizkuntzaren eta gure kulturaren berreskurapenean ezinbesteko zutabe izan zen emakume bati aitortza egitea da. Bere kantuetan, bere antzezlanetan, bere narrazioetan eta bere bizitzeko modu koherentean bizirik jarraitzen du".

Eider Mendoza, Ahaldu Nagusiaren adierazpena

"Ez zaitugu nahi bitrina batean, ez. Ezta ere, bakarrik argazkien zuri beltz ederrean. Nahi zaitugu etenik gabeko ibilian, etengabe berritzen den kultur sor-kuntzaren iturrian. Hori izango da zure ondare bizia badabilen seinale".

Sarobe arte eszenikoen gunea

KIROLO GALA

Herriar orori irekitako ekitaldia

Abenduak 23, 19:00

Urnietako
udala



DJ hasiberrien txanda

ANDOAIN Bi musika-saio izango dira Nafarroa Plazan, urteko azken egunean. Jabekuntza Eskolan DJ ikastaroa gidatu duen Siwanaba DJak eta bere lau ikasleek jarriko dute musika bi saioetan



Miren Elezgarai, Anabel Barrocal, Tamara Galan, Leire Etxarri eta Ostaizka Esteli Serra Pozo (Siwanaba DJ), abenduaren 31ko saio bikoitzari begirako azken prestaketak egiten. **AIURRI**

Xabier Lasa ANDOAIN
Jabekuntza Eskolan DJ ikastaroan parte hartu duten Tamara Galan, Miren Elezgarai, Anabel Barrocal eta Leire Etxarri ikasleek girotuko dute Nafarroa plaza, abenduaren 31ko arratsaldean, 19:30etik 21:30era. Urtezahar gaueko afariaren ostean, berriz, trebatzaile lanak egin dituen Ostaizka Esteli Serra Pozok (Siwanaba DJ) jarriko du musika toki berean, 01:00etatik 04:00etara.

Ahalduntze-prozesuen bidez, emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea helburu du DJ ikastaroak. Horretarako, premiazkoak diren lehen urratsak jorratu dituzte ikasta-

roan, Ostaizka Esteli Serra irakasleak adierazi duenez. “Gutxieneko ezagutzak menperatu ditzaten saiatu naiz: nor bere musika gustuak balioan jartzea, DJ baten jarduna plazaratzeko behar diren baliabide teknikoen, tresnen, programen... jabe izatea, musika bilatzen, deskargatzen eta antolatzen ikastea, musika nahasteko kontrolagailuaren oinarritzko eginkizunetan trebatzea...”. Berez, zortzi emakumek hartu zuten parte ikastaroan, urritik aurrera. “Oso profil anitzeko emakumeak bildu zituen ikastaroak; interes handiarekin agertu ziren guztiak ere, eta oinarritzko ezaguerak barnartzeko aukera emateaz gain, ema-

kumeen arteko sareak sortzeko
 spazio polita sortu genuen”.

Ikastaroa bukatu ostean, ikasitakoan trebatzen jarraitzeko eta saio praktikotik batera eramateko proposamena sortu zen. Era horretan, Tamara Galan, Miren Elezgarai, Anabel Barrocal eta Leire Etxarrik baiezkotzea eman zioten urteko azken ilunabar-gauetako ospakizuna girotzeko ekimenari.

Hasiberriak

Nork bere motibazioa eduki du DJ gisa jarduteko abenduaren 31ko musika-saioan. “Musika jartzeko betidanik barru-barruan sentitu” izan duena asebetetzeko balio izan diola ikastaroak, eta

halaber, balioko diola abenduaren 31ko saioak, aitortu du Tamara Galanek. “Emakumeen burujabetzearen aldeko ikastaroen esku-orria jaso nuenean etxeko buzoian, bi aldiz pentsatu gabe eman nuen izena. Eta egin esan, asko ikasi dugu Ostaizkarekin. Nafarroa Plazako saioarena planteatu zitzaigunean, berri, agudo animatu nintzen, zergatik ez! Aukera polita izan daiteke ikasitakoa ez ezik geure burua ere probatzeko jendaurrean. Ondo pasako dugula, eta jendeak ere ondo pasaraztea lortuko dugula, ziur izan!”.

DJaren ikastaroan murgilarazi diena “musikazaletasunaz gain, probatzeko tentazioari baietz esatera ausartu izana” izan direla adierazi du Miren Elezgarraik. “Pausoa eman dugu aurera, eta nik uste erakusten ari garela emakumeok ere ederki asko mugi gaitzekela gehienetan gizonezkoentzat gorde izan den eremu publiko horretan”.

Leire Etxarririk ere bere arrazoiak azaldu ditu, DJaren gaineko tailerrean parte hartzeko. “Solfeoarean ikasketan murgildu izan naiz txiki-txikitatit, esku-soinua jotzen dut, eta erakargarria egin zitzaidan ikastaroa. Gero, hura bukatu ondoren, ez nuen argi eduki jendaurrean jarduteko heldu zitzaigun proposamena. Lotsagatit-edo, ezetz esan nuen hasieran; izan ere, esku-soinujole gisa, badakit zer den publikoaren begiradapean aritzea, eta badakit aldea dagoe-la ondo menperatzen duzunaren eta ez duzunaren artean! Oraingo honetan, ordea, bai Ostaizka irakasleak eta baita ikasleak artean sortu den giro-atseginak animatu naute pauso hori ematera, lotsak uxatuta. Ilusioa eragiten dit saioak”.

Etzarrik jada lagunartean-eta zabaldu du abenduaren 31an egokituko zaion aparteko egin-beharra, eta ikusmin handia piztu du horrek, dirudienez. “inguruan askok esan didate azalduko direla, eta ikusten denez, lortu dezakegu Nafarroa plaza eramatea Zumea plazan arratsaldean sortzen den jendegiroaren zati bat behintzat”.

Laukoteak bi orduko saioan ze musika-klase jarriko duen galdetuta, “denetarik, hemendik eta handik” erantzun du Etxarrik. “Ondo banatu ditugu lanak; ordu laurdeneko bi saio egokitzen zaizkigu bakoitzari, eta nork bere gogoko musika jarriko du. Nik, doinu elektronikoaren alde joko dut. batik bat”.

Bi orduko saioaren edukiarekin jarraituz, “atzoko eta gaurko euskal taldeen aldeko apustua egingo dut nik; Oartzungo panterak, Zetak, Kai Nakai...”, aitortu du Anabel Barrocalek. Elizgaraik, berriz, “doinu latinoak, erregetoia eta halako jai-giroko testuinguruetan gehien entzuten diren abesti modernoak...”.

Lau musika jartzaileen kantu-
tegia kontuan hartuko diren
ezaugarrietatik, bi zehaztu nahi
izan ditu Elezgaraiak: “Dantzaga-
rriak eta emakumeen burujabe-
tzea aldarrikatzen dutenak”.

Azkenik, laukoteak, 2025. urteari modu alaiari eta dantzagarrirari agur esan nahi dioten gazteei zein helduei luzatu die gonbita, Nafarroa plazara hurbil daitezen, abenduaren 31an, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

2026. urteari ongietorria emateko, berriaz, handik gutxira, goizeko 01:00etan edukiko dute herritarrek aukera Nafarroa plazan bertan Siwanaba DJ-arekin, laukotearen irakaslearekin.

LV. BINAKAKO
ERREMONTE TXAPELKETA 2025

Orona Fundazioa

ABENDUAK 20

LARUNBATA · 16:30

GALARRETA JAI ALAI

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
DESKARGA · ESKUDERO VS Aiestaran VII · GOIKOETXEA VI

2. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)
ANSA II · ZUBIRI VS EZKURRA II · LARRAÑAGA

3. PARTIDA (BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA)
JABALERA · BARRENETXEA IV VS ALDABE · AZPIROZ

SARBINA
QR CODE

ORONA FUNDATZAIA K 65 SUTKILO BILBOA GAZTAKO ELkartea HAIN GIBELTZKOA Orona AJURRI



GABONETAKO HITZORDUAK ANDOAINEN ETA URNIETAN

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ANDOAIN

Abenduak 19, ostirala

19:30 Kontzertua, Basteron:
Olatz Salvador.

Abenduak 20, larunbata

11:00 "Axeri Dantza, herri baten
erritua" dokumentalaren
estreinaldia, Basteron.

12:30 Gaztain Festa eta euskal
dantzak, Juanita Alkain
plazan.

18:00-21:00 Gabon festa
Etxeberrietan.

Abenduak 24, asteazkena

17:30 Olentzero eta Mari Domingi.

Abenduak 26, ostirala

18:00 Scrooge eta mamuak
ikuskizuna.

Abenduak 26-28

Andoain Cup. Eskubaloia
Allurralden eta Arraten.

Abenduak 27, larunbata

10:00-14:00 Txutxu tren,
Goikoplazatik.

12:00 Gabon Kantak: Olagain
txistulariak.

18:00 Bertso-poteoa: Goikoplaza-
Zumea plaza.

Abenduak 29, astelehena

12:00-13:30 / 16:00-20:00
Gabonetako haur parkea,
Allurralden.

Abenduak 30, asteartea

11:00-13:30 eta 16:00-20:00
Gabonetako haur parkea,
Allurralden.

19:30 Gospel musika, Basteron.

Abenduak 31, asteazkena

11:00-13:30 Gabonetako haur
parkea, Allurralden.
Aniztasun funtzionala duten
haurrei zuzenduta.



Bi probatan zozketak egingo dituzte lasterketaren amaieran. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Urte zaharreko lasterketak

Urteari amaiera emateko hitzordu seinatua da. Andoaingo lasterka Itzuli
ekimenak antolatzen du eta Poxta Zahar gazte kuadrillen elkarteak, berriz,
Urnietakoa. Jai giroan murgiltzea da parte hartzeko modu onena.

Abenduak 31, asteazkena. 11:30, Zumea plaza. Andoain.

Abenduak 31, asteazkena. 16:30, San Juan plaza. Urnieta.

11:30 San Silvestre lasterketa,
Zumea plazan hasita. 5,3
Km-ko ibilbidea Andoaingo
kaleetan barrena.

11:30-13:00 Kalejira: Olagain
txistulariak.

19:30-21:30 Disko Festa:
Nafarroa plaza.

01:00-04:00 Disko Festa:
Nafarroa plaza.

Urtarrilak 2, ostirala

17:00 Gabon Giroan kontzertua,
zaharren egoitzan: Olagain
txistulariak.

Urtarrilak 3, larunbata

09:00 Emakumeen Errege
eskubaloitxapelketa,
Allurralden eta Arraten.
Leizaran klubaren eskutik.

Urtarrilak 4, igandea

16:00-19:00 Go!azen 12.0
ikuskizuna, Basteron.

Urtarrilak 5, astelehena

16:30 Erregeen bisitaldia zaharren
egoitzara.

18:25 Errege Magoen kalejira.

URNIETA

Abenduak 20, larunbata

18:00 Kontzertua: Esanezin eta
Janus Lester Plazido Muxika
plazan.

Abenduak 21, igandea

12:00 Ekoizleen azoka eta Aukeran
konpainiaren emanaldia,
Plazido Muxika plazan.



Axeri Dantzako kideak, Goiburuko puska-biltzean. AIURRI

ANDOAIN Axeri Dantzaren dokumentala

Aduna eta Andoaingo Axeri Dantza deskribatzen duen "Axeri Dantza, herri
baten erritua" izenburua daraman dokumentala egin du Aitor Arruti
zuzendariak. 1975ean berreskuratu zenetik 50 urte bete dira eta
dokumentalak urteurreneko ekitaldi-sortari amaiera emango dio.

Abenduak 20, larunbata. 11:00, Bastero Kulturunea. Andoain.

16:30 Kronia dance studioaren
emanaldia, "Ai ama"
erromeria eta txistorra-jana,
Etxeberri plazan.

Abenduak 23, asteartea

17:30 Olentzeroren eta
Mari Domingiren etorrera,
Berrasoetatik.

18:30 Kantazaunen 24ko
kantu-erronda prestatzeko
entsegua, Kiroldegiko
gelan.

19:00 Kirol Gala, Saroben.

Abenduak 24, asteazkena

17:00 Kantazaunen kalejira,
San Juan plazatik abiatuta.

17:30 Joselontxos Txaranga,
Plazido Muxika plazatik
abiatuta.

Abenduak 26, ostirala

19:00 Gospel musika, Saroben.

Abenduak 27, larunbata

12:30 Ainhua Ansa eta Irati
Odriozolaren kantaldia,
Lourdes Iriondoren omenez,
artistaren izena daraman
parkean.

Abenduak 28, igandea

17:30 Asier Kidam magoaren
"Smile" ikuskizuna, Saroben.

Abenduak 31, asteazkena

16:00 San Silbestre txikia, San Juan
plazan, Poxta Zaharrek
antolatuta.

16:30 San Silbestre nagusia, San
Juan plazatik abiatuta.

Urtarrilak 5, astelehena

17:00 Errege Magoen kabalgata.

EUSKARAZ BIZITZEKO

PIZ KUN DEA

Amets Aranguren · Anari · Ane Labaka
Benitze · Edurne Azkarate · Flako Fonki
Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu
Itziar Ituño · Joseba Tapia · Maia Iribarne
Mejillon Tigre · Miren Gaztañaga · Miren Narbaiza
Olaia Aguayo · Ramon Agirre · Sustrai Colina
... eta gehiago

Sarrerak:
pizkunde.eus

Abenduak 27an EKITALDIA
SILBAO ARENA · 17:00

"K"



Aiurri.eus webgunea: Gabonetako albistegia

Agenda, argazki-bildumak, bideo-sorta

EGUBERRI ON, IRAKURLE!

Datorren astekaria: 2026/01/09.

www.aiurri.eus



Elkarteen Foroko kide Koro Muro eta Asier Zinkunegi, Eusko Ikaskuntzaren egoitzan. MARKEL ARRAYAGO

Elkartegintzaren erronkei aurre egiteko, eredu berrietara jauzi egiteko unea da

Egoeraren diagnostia egiten eta bide berriak aztertzen ari da Elkarteen Foroa

Koro Muro Arriet eta Asier Zinkunegi Larrea. Eusko Ikaskuntza Fundazioko eta dar-dar Gizarte Ekimen Kooperatibako ordezkariak dira, hurrenez hurren, eta Elkarteen Foroko kideak biak: herritarren partaidetza bultzatzen duten lurraldeko elkarteen eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzako Zerbitzuaren arteko topagune eta elkarlanerako guneko kide, alegia. Badira urte batzuk bertan dihardutela, gizarteari gehigarri bat eskaintzen diola oharturik: "Jabetu ginen administrazioa eta gu garai batean mahaiaren alde banatan kokatzen baginen ere, posible

zela alde berdinean ipintzea eta elkarrekin lan egitea, gizarteari begira", adierazi du Zinkunegik. Kulturen esparrutik datozen eragileak, gizarte-politikan dabiltnanak... askotariko eragileak daude Elkarteen Foroan

"GAZTEAK ERAKARTZEKO, AGIAN, EPE MOTZEKOAK DIREN EKIMENETARA JO BEHAR DUGU"

KORO MURO ARRIET,
EUSKO IKASKUNTZA FUNDAZIOA

–40 bat guztira– eta, horien baturari administrazio publikoa gehituta, espazio oso aberasgarria sortzen dela erantsi du. "Aberasgarria, bai", berretsi du Murok, eta existitzen zirenik ere ez zekiten hainbat elkarte ezagutzeko balio izan diela, gehitu du.

Baldintzak aldatzen

Produkziara bideratutako gizarte batean bizi garela diote, sekulako abiaduran goazela, eta denbora eta energia oso gutxi geratzen zaizkigula gizarte arazo ezberdinetan inplikatzeko. Biak bat datoz: "Duela 50 urteko ereduetatik eredu berrietara

egiteko unea da". Egungo gazteek beste ohitura batzuk dituztela dio Murok, eta horietara egokitu behar garela: "Elkarteetan belaunaldi aldaketa eman dadin, ezinbestekoa da gazteak erakartzeara, eta gaur egungo gazteek ez dituzte epe luzeko konpromisoak onartzen. Agian, epe motzeko edo puntualak diren ekimenetara jo behar dugu". Guztiz ados azaldu da Zinkunegi: "Askotan dudan sentsazioa da nahi dugula jendeak parte hartzea, baina guk nahi dugunean, guk nahi dugun bezala, guk nahi dugun hizkuntzatan, guk nahi dugun... eta ahazten zaigu eurek nahi izan behar dutela, eta eskubidea dutela eurek nahi duten hori emateko eta ez guk eskatzen dieguna. Elkartegintzan ikasi beharko genuke gehiago entzuten erabiltzaile edo bazkide potentzial horiei".

Exijentzia burokratikoak

Errelebo premia ez ezik, beste erronka bat ere mahaigaineratu dute: administrazioarekiko betebeharrak erraztekoa: "Gaur egun, edozer gauzetarako, txosten bat aurkeztu behar duzu, baliabide digitalak oso ondo erabili... eta guk sumatzen dugu gure ingurunean dauden hainbat eta hainbat elkartek arazoak dituztela administrazioaren eskaerak betetzeko garaian".

Sinergien bila

Gipuzkoa eta Euskal Herria, oro har, elkartegintzan aberatsak direla dio Murok, baina, elkarren arteko ezezagutzaren ondorioz, hainbatetan, gauza berdinetan aritzen direla, eta horrek duplikazioak ekartzen dituela sinergiak lortu beharrean. Ildo horretatik, Zinkunegik gaine-

ratu du administrazioek aztertu behar dutela eremu bakoitzean zein elkarte dauden, zer egiten eta zertarako, eta saiatu behar dutela, batetik, elkarte horiei errekonozimendua eskaintzen egiten dutenarengatik, eta, aldi berean, harago joaten nola lagundu diezaieketen aztertzen. "Azken batean, elkarteak sortzen dira administrazioak asebetetzen ez dituen behar batzuk asebetzeko, eta uste dut administrazioari, batzuetan, ahaztu egiten zaiola hori", azaldu du.

Elkartiri eta Prest

Norabide horretan ari dira lanean Elkarteen Forotik. Elkartiri egitasmoaren baitan sortutako ikus-entzunezkoaren bitartez, herritarrek sentsibilizatu gura dituzte eta elkarerik gabeko herri bat nolakoa izango litzaitekeen hausnartzera bideratu –"grisa eta hotza", Zinkunegiren hitzetan–. Eta Prest ekimenen bitartez, bestetik, udaletara bideratutako esperientzia pilotu bat jarri dute martxan, elkartegintza ikusarazi, aitortu eta lankidetzara sustatzeko. Tolosan egin dute oraingoz, eta, datorren urtera begira, beste herri batzuetan ere inplementatzea da asmoa; hori eta herritarrek elkarrekin parte hartzera animatzea: "Denok gara beharrezkoak", adierazi dute.

"ELKARTEAK SORTZEN DIRA ADMINISTRAZIOAK ASEBETETZEN EZ DITUEN BEHARREI ERANTZUTEKO"

ASIER ZINKUNEGI LARREA,
DAR-DAR GIZARTE EKIMEN KOOP.



Elkarteen
Foroa

Elkartiri
dokumentaia





Urte berri on!

GABONAK IRITSITA
BAGATOZ KANTARI
DENOK IZANGO DUGU
HAINBESTE AFARI

APROBETXATU HANGO
JANARI TA EDARI
INDARRAKIN HELTZEKO ai ai ai ai...
URTE BERRIARI



Egileak: LH 6

Doinua: Minberatu zaizkigu
Sayuri Franco

Urrats
inprimategia

**ORDUTEGI
ALDAKETA** 2026^{TIK}

Astelehena

IREKITA

Asteartea

IREKITA

Asteazkena

IREKITA

Aurrez aurreko arreta

Astelehenetik asteazkenera

09:00 - 15:00

Egunero

Telefonoz eta emailaz

Osteguna

ITXITA

Ostirala

ITXITA

08:00 - 17:00

688 618 548

943 57 52 93

@ urrats@urratsinprimategia.com

%20eko
beherapena

OHARRA:
LAN BAKOITZEKO
DESKONTU 1

**kamiseten
pertsonalizazioan**

urrats2010

Urrats
inprimategia

Otsailaren 13 arte

Inprimaketan lan
ezberdinak

Kamisetak

**Laneko
arropak**

katiluak

DTP

MARKOAK

koadernaketa

PLANOAK

opari

pegatinak

RUXINAK

Txartel